

## Amara Berri

# Kaldereroak eta Konparsita

## Herrera

## Ehun bat kalderero

Asier Larrañaga | fnoa.: 943-465162 |

J oan den urtean eze-rezean geratu zen Santiagomendi elkarte-ko Kaldereroen konpartsa ateratzeko ahalegina. Ez zuten aukerarik izan gauzak prestatzeko. Aurten, aldiz, aurrea hartu dute eta abendutik ari dira entseiatzen. Lehendabiziko aldiz, Amara Berri kaldereroen konpartsa ofiziala izango du.

Fernando Otxoa izango da "ijito" en zuzendaria eta 80 bat heldu eta 20-30 haur izango ditu bere aginduetara.

Konpartsa 18.00etan aterako da Institutu Politeknikotik ondorengo ibilbidea egiteko: Felipe IV, Gregorio Ordoñez, Euskal kortsarioak, Ternuako Arrantzaleen kalea, Toribio Alzaga, Irungo plaza, Isabel II, Madril hiribidea, Olaeta plaza, Podavines, Donostiar Kofradien plaza eta Etxeberrien plaza. Hiru geldione egingo dituzte: Amara Osinagan, Irungo plazan eta Ikasbide kultur elkartearen parean. Olaeta plazan berriz, kanpamentua jarriko dute.

Hungarriarrek ohiko artzaz gain, Errondoko base-ri batetik ekarritako asto bat ere izango dute beraiekin. Karroza bat ere aterako dute.



Haurrek ondo baino hobeto pasatzen dute konpartsan.

### Ikasbide bere aldetik

Ikasbide Kultur Elkarteak ere aterako du urteroko konpartsa "Konparsita" izenez

bataiatu zutena. Hauek, beti bezala, lagun giroan aterako dira 19.30etan elkartetik. Ondoren elkarrekin afalduko dute.

### Txalaparta ikastaroak

Ikasbide Kultur Elkartearen txalaparta ikastaroak eskaintzen ari dira astearte eta asteazkenetan, 19.00etatik 21.00ak arte. Izena telefonoz eman daiteke 943 457107 telefono zenbakian, 17:30etatik 21:00etara bitartean.

Larraitz Garmendia | fnoa.: 943-391267 |

Datorren larunbatean, hilak 5, Kaldereroen konpartsa izango dugu Herrerako kaleetan barrena. Herrera bisitatzeko duen konpartsa duela hiru urte sortu zen eta inoiz baino partehartze handiagoa izango du aurten, 100 bat pertsona bilduko baitira gure auzoan hungariarren kantak abesteko.

Auzoko konpartsak baditu bitxikeria ugari, beteak beste, gutxitan ikus ahal daitezke Herreran zaldi eta astoez bultzatutako gurdiak. Konpartsa arratseko 19.00etan aterako da, orubete lehenago entseiatzen aritu eta gero. Ondoren, Gaiztarro auzotegirantz abiatuko dira. Han, zenbait lekutan abesten aritu ostean, Txingurrira jaitsiko dira, berriro ere San Luis plazara itzultzeko.

Gogoratu behar da Herreran azken urte hauetan antolatzen diren ekintzak, batez ere danborradarekin zerikusia dutenak, bertan behera gelditu direla jende eskasia dela eta. Aldiz, Olenzero eta Kaldereroek izugarriko arrakasta dute auzoan.

## DIBUJOA eta MATEMATIKA



- MATEMATIKA goi mailako ikasketak.
- MARRAZKI Teknikoa Ingeniari eta Arkitektura Goi Eskolatarako.
- GEOMETRIA Deskriptiboa.
- MARRAZKIA UBI, BB LH, Diseinu etabarretarako ikasleentzat.

Kolon pasealekua 46 - DONOSTIA • Informazioa eta izen ematea 29 08 83 tfnoan.

## SAN CARLOS BORROMEO

- Emakume eta gizonetako jantzizaintza eta mihisedenda.
- Bainujantziak eta bikiniak denontzat.
- Donostiako preziorik onenak.

**DENDA BERRIA!!**  
Aita Larroka kalea 12  
Tfnoa.: 943-271030

Oiartzun kalea 7 • Tfnoa.: 943-284547